



**EBAZPENA, 2024ko ekainaren 12koa, Hezkuntza Saileko Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, zeinaren bidez zehazten baitira Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan, hizkuntza-eskola ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetan, Bigarren Hezkuntzan, Hizkuntza Eskola ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetan, Arte Plastiko eta Diseinuan eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoetan dauden behin betiko lanpostu hutsak, Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren bidez deitutako lekualdatze-lehiaketan eskaintzekoak.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren mendeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen erkidego-mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko Aginduaren bigarren oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz (2023ko abenduaren 1eko EHAA), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez, lehiaketa horretan eskaini beharreko behin-behineko lanpostu hutsak argitaratu ziren.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertu dira, eta, bestalde, hutsak antzeman dira hutsik dauden lanpostuen behin-behineko zerrendan, eta zuzendu egin dira; hau da, akats baten ondorioz, Dantza Klasikoaren espezialitateko bi lanpostu falta dira, eta Bidebieta LHIIIIn ingeleseko lanpostu bat oker sartu da, definizio-akats baten ondorioz.

Horrenbestez, honako hau

## XEDATU DUT

**Lehenengo artikulua.**- Ebazpen honen eranskinean argitaratzea Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoetako funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketaren deialdian bete beharreko behin betiko lanpostu hutsak.

**Bigarren artikulua.**- Behin betiko lanpostu hutsen zerrenda horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, zerrenda jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 12a.